

ren. «Segur aski etxeak, baserriak, lokatzarekin eta egurrarekin egiten zituzten. Baina badirudi garrantzi handiagoa ematen zietela hildakoen munduari bizidunenari baino. Arkitekturaren aldetik, argi dago indar handia jarri zutela hilerriak egiteko, bai egitura aldetik eta baita mendi gainean egiten zituztelako ere. Paisaia marka bat utzi nahi zuten. Egitura hauek ez dira soilik ehorztoki bat, hildakoaren hezurak ezkutatzeko eta azkonarrak eta otsoak hildakoen hezurren artean ez ibiltzeko toki bat. Hori baino gehiago dira. Monumentaltasun bat eman nahi diete, paisaia marka bat utzi. Edozeinek ezagutu dezakeen egitura bat egin dute eta puntu zehatz batean jarri; segur aski lurraldea kontrolatzeko eta hildakoaren eskuetatik jasotzako lursailen jabetza hori aldarrikatzeko. Gainera, badute beste ezaugarri oso garrantzitsu bat: kolektiboak dira. Sinismena, lurraldetasuna, gizarte antolaketa... dena lotuta dago eta monumentu megalitikoek horri guztiari buruz hitz egiten digute. Monumentu horiek egiteak auzolana eta elkarlana eskatzen ditu. Denon artean eginak eta denontzako. Ez dira buruzagien ehorztokiak, herrixkako edo klan horretako kide guztien ehorztokiak baizik. Horrek ere asko esaten du garai hartako gizarteaz».

AUZOLANA, BERTAKOEK BERE SENTI DEZATEN

Auzolanean egindako trikuharria auzolanean atera dute bistara. Aranzadi Zientzia Elkartek gidatuta, Ereñotzu eta inguruetaoak aritu dira indusketa lanetan. «Aranzadirentzat oso garrantzitsua da hori, herritarren inplikazioa. Hernaniko Udalak lagundu du indusketa eta bertako jendeak jarri duen interesa izugarri polita izan da. Adin guztietako jendea gerturatu da. Erabakiak guk hartzen ditugu, baina jendearen laguntza garrantzitsua da. Aranzadik horren aldeko apustua egiten du, pedagogia lan garrantzitsua egiten da horrelako indusketetan. Arkeologiari garrantzia ematen zaio, aurkikuntza partekatu egiten da, herritarrek inplikatu egiten dira... Bertako herritarrek



Igoia-Akolako estazio megalitikoan badira monumentu gehiago, tontorraren gertueago gehienak. Irudian, 1950ean Jesus Elosegik Sagastietako Lepua deitutako dolmenean ateratako argazkia. Bertan, Akola baserriko umeak ageri dira. Jesus ELOSEGI | ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

tokiko ondarea ezagutu eta bere sentitzen dute. Eta hori da gerora aurkikuntza horiek babestuta izateko biderik onena, bertakoek aurkikuntza hori beraiena dela sentitzea», nabarmendu dute arkeologoek.

ORAIN, ERRESPETATU ETA ZAINDU

Ondarea guztiona da eta hori erregulatzen duten arauak eta izapideak daude. Kasu honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio lan arkeologikoak baimentzea. Tapiak dioenez, «lan arkeologikoak ez dira zaletasun bat. Ondarea ondo zaindu beharreko kontua da». Hartara, kasu honetan ere beharrezkoa izan da Aldundiaren baimena eta hark jarritako baldintzak betetzea.

Hemendik aurrera, zer? «Pieza guztiak gure laborategian aztertuko ditugu eta lehen bistara ikusi ditugun lehengaiak benetan horiek direla ziurtatuko dugu. Gero, orain topatutako piezak estazio megalitiko honetan topatutako beste piezekin konparatuko ditugu, eta baita Gipuzkoako eta Euskal Herriko beste batzuekin ere».

Putzuzarrekoa bezalako egiturak babestu egiten ditu Aldundiak, bai legearen aldetik eta baita fisikoki ere. «Ez dira ixten, baina bai markatu eta seinaleak jarri. Eta urtean pare bat aldiz garbiketa bat egiten da, ingurua

garbi mantentzeko. Hortik aurrera, jendeak errespetatzea eta zaintzea falta da». Kasu batzuetan, tokian tokiko udalak hesitu egiten du monumentua.

Manu Zeberioaren esanean, normalean jendeak errespetatu egiten ditu monumentu megalitikoak. «Lehen ez. Ehiztari askok monumentu horietan jartzen zituzten ehizarako postuak. Baina kasu askotan ezjakintasunagatik egiten dira horrelakoak. Azken hogeitau urtean lan handia egin da kontzientzia zabaltzeko, monumentu horiei balioa emateko eta zaintzeko. Orain, zorionez, ez dira horrelakoak gertatzen. Euskal Herrian normalean jendeak maite ditu bere monumentu megalitikoak eta zaintzen ditu».

Baina ondarea zaintzeaz aparte, monumentu megalitiko horiek informazio benetan baliagarria ematen dute garai bateko gizarteaz. «Klima larrialdiaz hainbeste hitz egiten den garaioan, gizakiak garai bakoitzean klima aldaketei zer-nolako erantzuna eman dien iker dezakegu aurkikuntza horiei esker. Finean, gizakiak betidanik izan duen erronkarik handiena hori izan da: nola aurre egin klima aldaketa horiei», zehaztu du Zeberioak. Alegia, nondik gatozen eta bidean zein puntutan gauden jakitea garrantzitsua da nora goazen erabakitzeke orduan.